

MARIAREN BIOTZ ORBANIK BAGEARI,
BERE SORRERAKO EGUNEAN.



Fedezko koroï disdisgarria jantzitakoak,
Eta ainbaga bizi zareenak illunpetan,
Biotz ta arimok naibageturik zabiltzazanok
Amoregarri mundukoren bat billaketan;
Alde batera larga betiko lurreko gauzak,
Igo bai, igo odeiak eurak oiñpeturik,
Igo gorago neugaz batera, Argia bizi,
Dan lekuraño, geratu arte an sarturik,
Nun deuntsuezan urrezko ate eder zabalak,
Sortu egin dan zeru barriak gaur idigi,
Zeiñ dan Jaunaren grazia danez dana betea,
Nun bake poz ta amodioa diran bizi.

Erdue arima onak, bertako iturrietan
Atsegin eta gozotasunak edatera,
Erdue zerren beraren biotz orban bagea,
Jakun Eden bat zerua bera duiñ ederra;
Jaungoikoaren Paradisu da, bertan Maiteak
Bere eskuaz isuri ditu emokaiak;
Bertan Arbola bizitzakoa loraz jazten da,
An gloriako errekek doaz gaur biziak;
Bertan Esposo jaungoikozkoak azuzena ta
Larrosa artean etzan lekua dau ezarri,
Milla ezkudoz, milla koroez, apaindu eta
Ain da baketsu, ain da argitsu, ain zurgarri,
Ain kanta onak, anche kantaurik goikantariak

Serafin gorri galantak jakoz gordelari.
 Zorioneko arimok arren, jaso eguok,
 Bere loretan zuen abiak jarri arin,
 Eyo dontzellak lora orrekaz korda galantak,
 Gizon santuak bichizko sortak laster egin;
 Bere lirio mardoen beian pekatariak,
 Atsedeteko amore santuz jarri lotan;
 Euren lurrinak lengo su loa ill degizuen,
 Eta osatu zauriok euren baltsamotan.

Uda-barria beti loratsu emen bizi da,
 Gabarentzako beti atea da ichia,
 Eten bagako eguerdiak eginduten dau,
 Loirik bagako Bildotsa jako Eguzkia.

Emen bizitza dauken guztiak errege dira,
 Izardun aroz koronadurik buruetan,
 Estola zuriz euren bularrak kurutzaturik,
 Erru bagako zetroak dabez eskuetan.

Irutasunak bertanche dauka bere jargoia,
 Jaunak laztantzen gu bertan gaitu, ta guk bera,
 Deitzen deuskula «ene semeak» eta bakezko
 Laztan artean eroanagaz bere maira.

¡O! biotz garbi miragarritzko zero barria!
 Orrako zero izarratuen artekua,
 Neurtu ezin dan Argiarentzat bizitokia,
 Noren amatzat zinealako esleidua;
 Amore santu arentzat zara etorrerea,
 Zara ortu on sortaldeetan ipinia,
 Ontasun oso uts bagearen mapa zabala,
 Graziarentzat egon-leku bat egokia,
 Eta zafiroz moldaturiko torredun eche,
 Maite-banderak gallur danetan ezarria.

¿Nok kantau daikez edertasunok direan legez,
 Eta maitetzen zaituenentzat zuk gorderik,
 Zeugan dozuzan gozotasun ta zein emokaiak,
 Kontau ezinda geratzen bada bat muturik?

Nik adoretan zaitut, Jaunaren toki dontsua,
 Jainko Aitaren jakituriarentzat duiña,
 Dana urrezko zati landutan guztiz egogi

Ezin obeto berareneskuz alan eiña;
 Nik adoretan egun sentiko izar ederra,
 Doe guztien ichaso zabal ugaría,
 Nik adoretan zaitudaz, Ama zaitugulako,
 Nik Luziferren zarealako galgarria,
 Zerren sorreran deutzazulako burua ausi,
 Emonaz iñok emon ez deutzan lotsaria.

FELIPE ARRESE TA BEITIA.

Ochandion, 1890-ko Abenduaren 8-an,

LA BODA DEL MENDIGO.

En otro tiempo vivía, si vida puede llamarse al pordioso, un mendigo desarrapado que contaba ochenta inviernos cumplidos.

De su cabeza había desaparecido el pelo, su barba enmarañada, larga é inculta, era blanca como la nieve, apenas si podía tenerse en pié y lo poco que andaba lo hacia encorvado y apoyándose en un baston.

Sus ojos se mostraban frios y apagados en las grandes concavidades óseas, y las manos le temblaban, presa del movimiento nervioso, sin que le fuera posible coger ni retener nada en ellas. Cubria sus harapos con una vieja capa compuesta de sin número de retazos de distintos colores y cuyos girones certificaban la posicion social de su dueño.

Este miserable octogenario habitaba una cueva en la falda de la montaña sin más ajuar que un puñado de paja, una jarra y una escudilla.

A corta distancia de la cueva, se veía una mala choza construida toscamente con tierra, troncos y ramas de árboles, y en ella moraba una viejísima mendiga, decrepita y sucia, y que al decir de las gentes de la aldea, tenia más de cien años.

Su boca, huérfana de dientes y muelas, ofrecía las encías gastadas,